



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN ETA HAINBAT ERAKUNDEREN ARTEKO PROTOKOLO ZIRRIBORROARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA.

2017/112 LGAKZ - LT

AURREKARIAK

- I. 2017ko irailaren 28ko datarekin sarrera eman zitzaion Araubide Juridiko Sailburuordetza honetan goian aipatutako protokolo proiektuaren legezkotasun txosten eskariari.

- II. Eskaria ondoren aipatzen diren agiriek osatzen dute:
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak izenpetutako memoria.
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak Gobernu Kontseiluari luzatzen dion akordio proposamena .
 - Eusko Jaurlaritzaren eta (dena delako erakundearen) arteko protokolo zirriborroa, 2017-2020 epealdian euskeraren adierazle Sistema datuz hornitzeko; eta azkenik,
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzaren txostena.

- III. Txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14. artikuluan atxikitako eginkizuneran sustraitzen da. Baita ere, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuz Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoan.

PROIKTUAREN AZTERKETA

IV.- Protokoloa sinatuko dutenak dira, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta honako erakundeak:

- Euskal Herriko, Deustuko eta Mondragon Unibertsitateak,
- Eustat eta Habe organismo autonomoak, eta
- Etxepare Euslak Institutua, Zuzenbide Pribatuko erakunde publikoa.

V.- Saileko Aholkulari Juridikoaren atal-arduradunak luzatu duen txosten bikainarekin bat nator, ondorengo alor honekin izan ezik: nire ustez proposatutakoak protokolo izaera du eta ez hitzarmenarena. Zeren kasu honetan, partaide guztien artean eskumenak elkarri lotuta daude EAS sisteman eta guztientzat da interesgarria lankidetzat, antzeko esparru orokorra eta metodologia finkatzea baitu helburu.

VI.- Egia da ez dela batere xamurra protokolo eta hitzarmenaren arteko mugak zehaztea, baina, berriro diot, nire ustez esku artean daukagunaren izaera protokoloarena da. Ondorioz, txostenean aipatzen diren beste gaiei buruz ez dut inongo aipamenik egingo, esandako Saileko txosten juridikoarekin bat egiten dudalako.

VII.- Figura biak (protokoloa zein hitzarmena) urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, arautzen ditu 47. artikuluan eta bere aginduak apirilaren 25eko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitu Juridikoaren 144/2017 Dekretuaren 54.1 artikuluan errepikatzen dira, hitzez hitz.

VIII.- Tresna biek funtzio berbera dute, alegia, sinatzaileen artean “helburu komun” bat lortzea; baina, horretarako, tresna bata eta bestea baliabide edo ahalmen ezberdinez daude hornituak. Horrela, hitzarmenak “ondorio juridikoak” ditu;

protokoloak, berriz, ez. Aipatutako legeak eta Dekretoak diotenez, protokoloek ez dute “konpromiso juridiko zehatz eta galdagarririk formalizatzen”.

IX.- Hori da bien arteko funtsezko desberdintasuna. Hitzarmenen kasuan, hitzartutakoa betetzen ez denean, alderdiak auzitegietara joan daitezke epaileen laguntza eskatzera, adostutakoa osatzeko eta betetzeko. Ez, aldetantziz, protokolo orokorren kasuetan.

X.- Horregatik dio 40/2015 Legeak [hurrenez-hurren bere 49.e) eta 51.2.c) artikuluetan]:

- derrigorrezkoa izango dela hitzarmenean aurrikustea “e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento”
- eta hitzartutakoa ez betetzekotan: “c) (...) En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones y compromisos que se consideran incumplidos (...)”.

XI.- Beraz, aurreko ataletan esandakoarekin bat egiteko (eta haren idazkera hobetzeko), hitzarmenaren zirriborroan honako aldaketak egingo beharko lirateke:

- Bosgarren klausula errepikatuta dago eta, ondorioz, ondorengo guztiak berriro zenbatu beharko dira.
- Baita ere, klausula bereberran “hitzarmena” hitza “protokolo” hitzarekin ordeztu beharko da.

Hau da luzatzen dudana txostena Vitoria-Gazteizen, 2017ko urriaren 20an.